

# Maria Labaien

XVI. mendeko  
emakume sagardogile  
ausarta

Lourdes Odiriozola Oyarbide



Banda  
1865-

El Conde de  
desemb...



# Maria Labaien XVI. mendeko emakume sagardogile ausarta



**A**ntzina, Gipuzkoa lurralde “pobrea” izan zen; ez zen gauza bertako jendea mantentzeko ere. Denbora hartan, sagarra zen uzta printzipaletako bat; hortik bizi zen eskaldun asko, eta sagarraren gorabeheran izaten zituen gizarteko harremanak. Hori dela medio, gure arbasoak ontzietan sartu, eta lurrak ematen ez zien mantenua bilatzen zuten itsaso barrenean.

Itsas abentura horretan, funtsezkoak izan ziren

eskaldunek XIII-XV mendeetan ontzigitzan egindako aurrerapen teknologikoak, horiei esker urrundu ahal izan ziren eta itsasbazterretik, bidaiari luzeetan. Eta horri esker ibili ziren eskaldunak salerosietan Ipar Atlantikoko portuetan, baleak harrapatzen eta bakailaoa arrantzatzen Ternuako uretan, lurralde eta itsas ibilbide berriak aurkitzen. Munduari bira ere horri esker eman zion Juan Sebastian Elkanok.

## Maria Labaien XVI. mendeko emakume sagardogile ausarta

Itsaso eta ozeanoetan barrena egindako bidaietan, garrantzi izugarria hartu zuen sagardoak, hori baitzen oinarritzko dieta merkatariek, marinelek eta arrantzaleek eskorbutorik izan ez zezaten, itsasoko gaitzik beldurgarrietako bat. Itsasontzi horiek hornitzeko, sagardoa garraiatu behar zen portu batetik bestera, eta batzuetan, okasioak izaten ziren negozio horretan sartuta zeuden parteen artean, baita Gipuzkoako herrien artean ere.

XVI. mendean, urrezko aroa izan zuen sagardoak. Egonkortasun politikoak eta goraldi ekonomikoak lagundu zuen horretan, bai eta itsas ibilbideen aurkikuntzak eta kontrolak eta zabalkunde demografikoak ere. Hala, 1497an, esaterako, Ternua

**Maria Labaien, lezotarra, alargun geratu zen; eta bere bi alabak aurrera ateratzeko, etxeko sagarrarekin sagardoa egin eta merkaturatu zuen, eta balea-koipearen negozioan zebilen itsasontzi batean ere bazkide izan zen.**

aurkitu zuten: bakailao sarda izugarrien eta balea askoren pausaleku. Gezurra badirudi ere, horrelako berriak laster batean hedatzen ziren, eta horregatik hasi ziren gipuzkoarrak bidaiari antolatzen 1525ean leku urrun haietara, baleak harrapatzeko. Hau da, 28 urte bakarrik igarota.

Handik aurrera, urtez urte itsasontzi mordo bat abiatu zen Gipuzkoako portuetatik Kanadako ur hotzetara, zetazeoak harrapatzera. Pasaia zen portu horietako bat, eta gure protagonistaren kontakizuna, Maria Labaienena, bertan gertatzen da.

1565. urteko udaberrian, baleontzi asko ari ziren



prestazen Pasaiko portutik partitzeko Ternuara, hortietako bat Juanes Illunbe oriotarraren Saint Nicolas. Baina gure istorioa hilabete batzuk lehenago hasi zen.

Baleontzi bat hornitzea asko kostatzen zen, eta, hori ez ezik, baleontzia bera ere gauza garestia zen. Hortaz, Juanes Illunbek bolada bat eman zuen bidaia eta eskifaiaaren hornigaia diruztatuko zizkioten kideen bila, eta bera arduratuko zen ontzia gidatzeaz eta eskifaia bilatzeaz. Harekin eta honekin tratuan ibili ondotik, hiru lagunek azaldu zuten interesa, Paulo Iturriagak, Martin Akordak eta Maria Labaienek. Emakume bat itsasontzien negozioan!

Ez dakigu askorik Maria


**Itsasontzia hornitzeko, 190 dukat behar izan ziren.**

**Maria Labaienek eta beste bazkide batek zortzirena jarri zuten bakoitzak (24+24 sagardo barrika). Hau da, gastu guztien laurdena sagardotan jarri zen! Argi dago garai hartan sagardoak urrea balio zuela.**

Labaienez, baina dudarik gabe ondo ezagutzen zuen negozioen mundua, eta ekintzailea, trebea eta ausarta zen. Lezoarra bera, Migel Arrieta kapitainarekin ezkondu zen, eta Isabela eta Katalina alabak izan zituzten. Hortik kanpo, badirudi tolarre-baserri baten jabe zela, eta sagar uzta propioarekin egiten zuela sagardoa.

Garai zaila tokatu zitzaion emakumeari, ekonomia aldetik, senarraren diru sarrerarik gabe gelditu baitzen hura hil eta. Hortaz, modua asmatu behar izan zuen diru sarrera berriak bilatu eta bi alabak aurrera ateratzeko.

Gizonari esker itsas munduko negozioak ezagutzen zituenez, jakitun zen sagardoa trukerako



“Bartzean, Ternuara,  
Urtatu beste da belara,  
Beregi, baina dago arradan,  
Denbor-onaren pastadan.  
Xuri garbi zetu gaina,  
itsasor eder maia:  
Hauz onat beharaco,  
Denbor-onat, partzeaco.”

**1565. urtean, Terranovara balea arrantzara zihoan “Saint Nicolás” itsasontziko bazkide egin zen Maria Labaien. Zortzirena jarri zuen, baina ez dirutan, baizik eta berak egindako 24 sagardo barrika emanda.**

gai ona zela, eta hala otu zitzaion Juanes Illunberen elkartean sartzea, Ternuara joan asmo baitzuen Juanesek Saint Nicolas ontziarekin. Bai hala egin ere.

Bidaiaaren inguruko gorabeherez hitz egin zuten kideek elkarrekin, eta konfiantzazko idazkari bati agindu zioten hitzartua agiri batean jartzeko. Hala, pleitatzeko-kontratu batean ipini zituzten bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak, orobat irabaziak eta galerak, halakorik izanez gero. 190 dukat batu zituzten, ontzia

armaz eta janaz hornitzeko, eta Maria Labaienek zortzitik bat jarri zuen; hau da, 23,75 dukat, baina ez diruarekin, “bere etxeko eta uztako” 24 barrika sagardorekin baizik. Martin Akorda zen beste bazkideetako bat, eta hark ere proportzio

berean parte hartu zuen, 24 barrika sagardorekin; hain justu ere, gure protagonistari erositako sagardo horiek. Hortaz, zer eta bidaiako gastuen laurden bat, sagardo barrikatan ordaindu zuten! Ez da dudarik: sagardoak urrea balio zuten

**1565. urteko apirilean, "Saint Nicolás" itsasontzia Terranovara abiatzeko Pasaian prest zegoela, Donostiako udal agintaritzak Labaien anderearen sagardoak konfiskatu zituen, portuko itsasontziek Donostiako sagardoa soilik ontziratatu zezaketela argudiatuta.**

orduan, eta balio handia egiten zuten merkatuan.

Antza denez, gure protagonistak probetxu ona ateratu zion sagar urtabe bikaina izan zela zirudien hari. Izan ere, alde batetik bere ekoizpenaren parte bat saldu zuten, eta eskudirua lortu; eta, beste alde batetik, kideko jarri zen itsas negozio batean, eta irabaziak jaso zitzaizkeen handik zetorkeen saina salduta, kontratuan jartzeko zutenaren arabera.

Baina egin ditzagun kalkuluak. 400 bat tonako baleontzi batek 1.200 eta 1.400 barrika baino ekartzen zituen; bestela esan: 240-280 tona balea gantz.

## S<sup>t</sup> SEBASTIEN



**Gutxi dakigu Maria Labaieni buruz, baina zalantzarik ez dago ekintzailea, kementsua eta ausarta izan zela. Donostiako Kontzejuari auzia jarri zion, 24 sagardo barrika konfiskatu zizkiotelako, eta aldeko epaia lortu zuen.**

Horrez gain, balea haragia edo "pasta" eta bizarrak ekartzen zituzten. Sainak zenbat balio zuten kontuan izanda, kostera on batek 1.000-10.000 dukaten zama ekarriko zuen, eta Maria Labaienen 23,75 dukateko inbertsioak 125-1250 dukat eman zitzaizkeen.

Hala ere, kontuak ez zitzaizkion espero bezala atera, eta munta handiko arazoak gainditu behar izan zituen.

Saint Nicolas ontzia prestatu, armatu eta hornitzearena uste bezala joan zen, eta epeak bete zirenen azken ordu arte. Prest ziren ontzia Ternuara abiatzeko 1565eko apirilaren bigarren hamabostaldian, Pasaiaiko kaietan amarraturik ziren

Gipuzkoako eta Lapurdiko beste ontzi ugari bezala.

Bazkideek Pasaia aukeratu zuten, Kantabria osoko porturik onenetako bat zelako, ekaitzetatik babestuta, portuko zerbitzuak bikainak zirelako (biltegiak, kaiak, salgaien pisaketa...) eta orobat sagardo asko egiten zelako Donostian, Lezon, Errenterian eta inguruetan. Alabaina, alde txar bat ere bazuen Pasaia, hiru udalerrirena baitzen: Donostia, Errenteria eta Hondarribia. Hori dela kausa, auzietan sartu ziren hiru herriak, eta armaginek gorabehera batzuk izan zituzten sagardoa ontziratzeke orduan, tartean zen Maria Labaienena ere.

Kontua zen Donostia eginahalak egiten ari zela Gipuzkoako eta Lapurdiko ontziek bere barrutiko sagardoa bakarrak har zezaten, Henrike II.ak 1376an sinatutako zama-pribilegioetan oinarrituta, zeinak berretsiak izan baitziren 1489ko udal ordenantzetan. Hori kontraesanean zen, ordea, Gipuzkoako Ordenantzeekin; horien arabera, edozeinek baitzuen eskubidea Gipuzkoan ekoiztiko sagardoa saltzeko

© Albaola




**XVI. mende hasieran hasi ziren gipuzkoarrak Terranovara joaten balea arrantzara. Bidaia haietan erabateko garrantzia zuen sagardoak; hari esker, marinela eta arrantzaleek ez zutelako eskurbutoa harrapatzen, itsasoko gaixotasun larrienetakoa.**

eta ondorioz portuko edozein itsasontzitan zamatzeko.

Sagardo uzta handiko urteetan sortzen ziren horrelako gorabeherak; hau da, merkatuan sagardo asko zegoen urteetan. Eta, hain zuzen ere, 1565a urtabe onekoa izan zen, ikusirik zer gertatu zitzaion Maria Labaieni.

Lezoko alargunak sinatutako kontratua zela medio, 24 barrika sagardo zamatu zituzten Pasaiko kaietako batean, eta portutik irtetera zihoala, Donostiako udal agintariak konfiskatu egin zizkioten sagardoak Labaien andrearri. Ez dakigu zer gertatu zen Martin Akordaren 24 barrikekin, baina jatorri bera izanik, seguru asko horiek ere



© Albaola

konfiskatu egingo zizkioten, eta Akordak ez zuen ezer egin izango horren aurka.

Hala ere, bestelakoa izan zen Maria Labaienen jokabidea.

Ez zen ikaratu, eta salaketa ezarri zion Donostiako Kontzejuari Gipuzkoako Korrejidorearenean, 24 barrika sagardoak berriz bueltatzeko.

Alegatua egiteko orduan, adierazi zuten Saint Nicolaseri zamatu zituztela sagardoak Lezokoek Pasaiko Portuan beren uztak berak pleitatutako ontzietan zamatu ohi zituzten gisan, Ternuara joaten ziren bestelako salgaiekin egiten zuten bezalaxe.

Auzien gastu ugariak ordaindu ondoren —izan ere, lehen

**Epaiketaren gastuei aurre egin eta mota guztietako frogak aurkeztu ostean, garaipen handia izan zen Maria Labaienen aldeko epaia, pertsona pribatu batek Donostiako Kontzejuari irabazi egin ziolako. Gainera, litekeena da epai hark inguruko sagardogile gehiagori lagundu izana.**

epaiari helegitea jarri zioten — eta urtebetez zain egon ondoren, epaileak azkenean, arrazoia eman zion. Zehazki, zigortu egin zuen Donostiako Kontzejuak barrikak itzultzera, zeren eta garbi gelditu baitzen Pasaiko Portuan bertako jendeak ohi zuen gisan beren uztako sagardoak zamatzan eta saltzen ari

## Maria Labaien

**400 bat tonako baleontzi bakoitzak 1.300 bat balea-koipe barrika ekartzen zituen (240-280 ganiz tona). Balearen haragia eta bizarrak aparte. Hau da, 1.000 eta 10.000 dukat bitarteko karga ekartzen zuten. Beraz, 23,75 dukat inbertituta, Maria Labaienek 125 eta 1.250 dukat bitarteko irabaziak lortu zitzakeen.**

zirela ontzi propioetan nahiz besterenetan, zamalan eta armazoi eran nahiz beste edozein eratan. Epai hori garaipen handia izan zen Maria Labaieneztat, zeren eta Donostiako Udalarirabazteko ahalbidea izan baitzuen epaiketari aurkeztutako frogaguztiek. Gainera, aurrekari

bat izan zen gainerako sagardogileentzat. Oraingoan, ez dakigu Maria Labaienek berriz egin ote zuen traturik balea sainen negozioan. Alabaina, aldeko epai hori ikusita, ez du ematen oztoporik edukiko zuenik bere sagardoak Pasaiko portura etorritako ontzietan zamatzeko.

Lourdes Odriozola  
Irun, 2018ko urtarrila

Irudien jatorria:

- Alabaola, Itsas Kultur Faktoria
- Eusko Ikaskuntza
- Sagardoetxea Museoa
- Lourdes Odriozolaren liburutatik
- Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa

